



Merkatuaren segmentazioa

Bezeroaren profila

Merkatu ikerketa bat egin ondoren, ondorio hauek atera ditugu:

Gure bezeroak gazteak dira, 18 eta 24 urte bitartekoak, modaz eta jasangarritasunaz arduratzen diren pertsonak. Estilo propioa izatea gustatzen zaie, baina kontziente dira kontsumo masiboaren eta *fast fashion*-aren ondorioez. Arropa berria erosi ordez, berrerabili, trukatu eta esperientzia kolaboratibo batean parte hartu nahi dute.

Adina eta ezaugarri demografikoak

- Adina: 18 – 35 urte
- Generoa: Gehienak emakumeak dira egin ditugun inkesten arabera, baina denetarik.
- Egoera ekonomikoa: Ikasleak edo lanbide hasierako gazteak, diru-sarrera ertain edo baxukoak
- Kokapena: Gehienak herrian bizi dira.

Interesak

- Moda eta estilo pertsonala
- Jasangarritasuna eta ingurumenaren zaintza
- Birziklapena eta kontsumo arduratsua
- Diseinu eta sormen proiektuak
- Komunitate digitaletan parte hartzea

Portaera digitala

Sare sozialetan oso aktiboak: Instagram, TikTok, Vinted, Wallapop erabiltzen dituzte. Eta Inspo edo outfit-ideiak bilatzen dituzte sareetan, askotan *influencer* jasangarrien gomendioak jarraitzen dituzte. Esperientzia bisual eta sozialari garrantzia ematen diote: diseinu erakargarria, erabilerraztasuna eta komunitate-sentimendua baloratzen dituzte.

Motibazio nagusiak



Armairua berritu nahi dute, diru askorik gastatu gabe eta jantzi zahar bati bigarren bizitza ematea ideia ona iruditzen zaie. Ingurumenaren inpaktua murriztu nahi dute ere eta moda jasangarriago baten alde egin. Bilatzen dute esperientzia dibertigarri, sozial eta sortzaile bat, ez bakarrik truke transakzio hutsa. Gustatzen zaie komunitate batean parte hartzea, antzeko estilo eta balioak dituzten pertsonekin konektatzea.

Bezero motaren laburpena

Gure bezeroa pertsona gazte, sortzaile eta arduratsua da.

Ez du moda ulertzen soilik itxura bezala, baizik eta **adierazteko, partekatzeko eta ekiteko modu** gisa.

Arropa trukatzeko aplikazioa aukera gisa ikusten du: modu kontzientean berritzeko eta komunitatean oinarritutako esperientzia bat bizitzeko tresna gisa.

Estiloa? Trukean dabil!

